



INDUSTRIA, TRANTSIZIO
ENERGETIKO ETA
JASANGARRITASUN SAILA
Ingurumen Sailburuordetza
Ingurumen Administrazioaren
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
TRANSICIÓN ENERGÉTICA Y
SOSTENIBILIDAD
Viceconsejería de Medio Ambiente
Dirección de Administración
Ambiental

EBAZPENA, INGURUMEN ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARIARENA, ERAIKUNTZA- ETA ERAISPEN- HONDAKINEN ETA ERAIKUNTZA- ETA ERAISPEN- HONDAKINEN BALORIZAZIOTIK ERATORRITAKO BIGARREN MAILAKO MATERIALEN ERABILERARI BURUZKO ARAUBIDE JURIDIKOA EZARTZEN DUEN AGINDU-PROIEKTUA EGIN AURREKO KONTSULTA PUBLIKOAREN IZAPIDEA EGITEKO DENA.

Eusko Jaurlaritzako Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Sailak, Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzaren bidez, aurreikusita dauka eraikuntza- eta eraispén-hondakinen eta eraikuntza- eta eraispén-hondakinen balorizaziotik eratorritako bigarren mailako materialen erabilerei buruzko araubide juridikoa ezartzeko agindu-proiektua lantzen hastea.

Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abenduaren 3ko 410/2024 Dekretuaren 18.2.d) artikulua arabera, Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzaren eginkizunen artean dago hondakinak prebenitzeko eta balorizatzeko jarduketak bultzatzea.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikulua 1. apartatua eta Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 11. artikulua ezarritakoarekin bat etorriz, kontsulta publiko bat bideratuko da administrazio eskudunen web-atariaren bidez, eta jasoko da zer iritzi duten etorkizuneko arauak uki ditzakeen herritarrek, erakunde publikoek eta ordezkari handiena duten antolakunde, entitate edo elkarteek honako gai hauei buruz:

- Arau-ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak.
- Araua onartzeko beharra eta egokitasuna.
- Arauaren helburuak.
- Bestelako aukera arautzaile eta ez-arautzaileak.

Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abenduaren 3ko 410/2014 Dekretuak emandako eskumenei jarraikiz, honako hau

EBAZTEN DUT

Lehenengoa.- Kontsulta publikoaren izapidea egitea eraikuntza- eta eraispén-hondakinen eta eraikuntza- eta eraispén-hondakinen balorizaziotik eratorritako bigarren mailako materialen erabilerei buruzko araubide juridikoa ezartzen duen agindu-proiektuari.

Donostia - San Sebastián, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ





Bigarrena.- Herritarrek, erakunde publikoek eta arauaren eraginpean daudela uste duten erakunde, entitate edo elkarteek hamabost egun balioduneko epea izango dute ebazpen honen eranskinean planteatutako gaiari buruz dituzten iritziak helarazteko, ebazpena Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren web-atarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, sinaduran ageri den eguna.

NICOLÁS GARCÍA-BORREGUERO URIBE
Ingurumen Administrazioaren Zuzendaria
Director de Administración Ambiental



ERANSKINA, ERAIKUNTZA- ETA ERAISPEN-HONDAKINEN ETA ERAIKUNTZA- ETA ERAISPEN-HONDAKINEN BALORIZAZIOTIK ERATORRITAKO BIGARREN MAILAKO MATERIALEN ERABILERARI BURUZKO ARAUBIDE JURIDIKOA EZARTZEN DUEN AGINDU-PROIEKTUA EGIN AURREKO KONTSULTA PUBLIKOAREN IZAPIDEA EGITEKO DEN INGURUMEN ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARIARENA.

1) ARAU-EKIMENAREN BIDEZ KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK:

Egun indarrean dagoen ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuak, eraikuntza- eta eraispén-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen dituenak (2012ko irailaren 3ko EHAA, 171. zk.), honako hau ezartzen du bigarren xedapen gehigarrian: «*Eraikuntza- eta eraispén-hondakinen balorizazio-lanaren emaitza gisa lortutako agregakin birziklatuak eta eraikuntza-materialak erabiltzeko baldintzak ezarriko ditu Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoak*».

Ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuaren bigarren xedapen gehigarrian aurreikusten dena garatzeko, Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailburuaren 2015eko urtarrilaren 12ko Agindua onartu zen, zeinaren bidez ezartzen baitira eraikuntza- eta eraispén-hondakinen balorizaziotik eratorritako agregakin birziklatuak erabiltzeko baldintzak (2015eko otsailaren 3ko EHAA, 22. zk.).

Une honetan, administrazio-prozedura bat abian da (https://www.euskadi.eus/jendeaurreko_erakustaldia/aurre-kontsulta-eraikuntza-eta-eraiispén-hondakinei-buruzko-dekretu-proiektuari-dagokiona/web01-tramite/eu/), bi helburu nagusi dituen dekretu berri bat onartzeko:

- 1) Eraikuntza- eta eraispén-obretako hondakinak eta materialak ekoizteari, edukitzeari eta kudeatzeari aplikatu beharreko araubide juridiko berria onartzea.
- 2) Material horiek hondakin izateari noiz uzten dioten zehazteko irizpideak ezartzea, ondoren bigarren mailako material gisa erabiltzeko.

Egun lantze-prozesuan dagoen dekretu-proiektua onartu, argitaratu eta indarrean jartzeak ekainaren 26ko 112/2012 Dekretua indargabetzea ekarriko du. Ondorioz, hura garatzeko araua ere, hau da, Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailburuaren 2015eko urtarrilaren 12ko Agindua, aldatu egin beharko da, egokitua izan dadin, bai aurrerapen teknologikoetara, bai eraikuntza- eta eraispén-hondakinen balorizaziotik eratorritako bigarren mailako materialen balizko erabileren esparruan izandako arau-aldaketetara.

2) ARAUA ONARTZEKO BEHARRA ETA EGOKITASUNA:

European Green Dealek ezarritako esparruaren barruan, ekonomia zirkularra jasangarritasunaren eta lehiakortasunaren funtsezko bektorea da, eta trantsizioa bultzatzea du helburu, egungo ekonomia linealaren eredutik —erauzketan, fabrikazioan, erabileran eta deuseztatzean oinarritzen den eredutik— materialen, energiaren eta



hondakinen stocken eta fluxuen erabilera optimizatuko duen eredu zirkular berri baterantz, azken helburua baliabideen erabileran efizientzia lortzea baita.

Europar Batasunaren helburu estrategikoekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko 2030erako Planarekin bat etorriz, eraikuntza- eta eraispén-hondakinen berrerabilpenean eta balorizazioan eta prozesu horietatik eratorritako materialen merkaturatzean aurrera egitea alferrik galdu ezin den aukera da lotutako ingurumen-adierazleak hobetzeko eta lotutako balio-kateak indartzeko.

Garrantzitsutzat jotzen da eraikuntza- eta eraispén-hondakinen eta horien balorizaziotik eratorritako bigarren mailako materialen erabileren katalogoa zabaltzea, balio erantsi handiena dutenak lehenetsiz, orain arte nagusi izan diren erabilera masibo eta tradizionalak etorkizunean murrizteko joera izango baitute.

3) ARUAREN HELBURUAK:

Agindu-proiektuaren helburuak honakoak dira:

- a) Eraikuntza- eta eraispén-hondakinen balorizaziotik eratorritako agregakinen erabilera baimenduak ezartzea.
- b) Materialak erabiltzeko baldintzak ezartzea.
- c) Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak izan dituzten edo dituzten kokalekueetatik datozen lurren eta harrien ingurumen-baldintzak ezartzea.
- d) Erabilera zehatz bakoitzerako birziklatutako agregakinen ingurumen-ezaugarriei buruzko laginak, analisiak eta saiakuntzak arautzea.
- e) Hondakinak kudeatzeko baimenetan emandako hondakin-amaierako izaera edo erabiltzeko berariazko beste administrazio-betekizun batzuk lortzeko baldintzak ezartzea.

4) BESTELAKO AUKERA ARAUTZAILE ETA EZ-ARAUTZAILEAK:

Arlo honetan, agindu berri bat onartzea ezinbestekoa eta atzeraezina da, behar den preskripzio-ahalmenaren eta mota horretako xedapenei datxekien malgutasunaren arteko oreka egokia bermatzen baititu.

Beharrezkotzat jotzen da, batetik, operadoreei segurtasun juridikoa emango dien dekretu formako erregelamendu-mailako arau bat onartzea, eta, bestetik, honen moduko xedapen bat egitea, agindu-forma izango duena. Agindu honek arautzen dituen gaiak ezin dira modu egokiagoan jorratu arau-izaera ez duten beste tresna batzuen bidez.

Era berean, elementu osagarriak garatuko dira hainbat mailatan, planteatutako preskripzioak behar bezala inplementatzeko eta hedatzeko.

Azkenik, alderdi zehatz batzuk landuko dira interes-taldee zuzendutako prestakuntza- eskuliburu eta -jarduera espezifikoetan.